

Erref. kodea: LAF-218-190 [7]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Barandiaran, Gaizka: [identifikatu
abeko artikulua itzulpegintzaz]

Idazkera askotariko asmatu nun. Bai luze, bai motx.

Euskera erriaren aon egiña dan ezkeru, euskal esakunak motxak dira. Orregaitik, esakun luzez egin ezkeru, lehengo aldiak olakorik ez degu ontzat artzen, oituta ez geralako.

Asieran, ba, esakun luzeak "eramangaitzak" izango zaizkigu, beñola ez ~~xxxxxx~~ ba dugu Euskera ortan lantzen eta erabiltzen.

Segala'k esakada luzez itzuli zun erderara, ta bere itzulketa ederra da. Luze izan arren, euskal joskera jatorra dan ala ez begiratu bear zayo, ta gero idazkerari, beran autagarriago dan ala ez, motxago o be aal dan.

Euskera beti egamotx geratu bear ko aal da? Norek difioke, sayaren egazkadarik Euskera'ri, Bossuet eta Gebara ta Kiker'en antzera, egundano ez zayola jantzi apaingarri izango?.

.....
Euskalki batzuek erabiltzen ditut Poema'n. Elkar izketan, Akayar'en aon bizkayeya ipintzen dut.

Ez dakit bizkai usai ariña ote dan ala ez. Neronek ikasi ta ~~xxxx~~ itz egin dudana da geyenetan.

Beste forma nabar batzuek ere eratziki dizkiot. Beraz, kritiku ta auzilari bere burua izentatu nai duna, euskalki bat alaxe dan ala bestela dan auzi eman aurretik, ikas beza, bai, leenbizi besteren mintzera.

Baña ba-da beste zergati bat ere, euskalki aunitzetan Poema itzultzeko. Euskera, ba, bere batasunera eltzen ba'da, ondo deritxot osterantzeko edestiak beste euskalkien zatiak ere iduki ditzala.

Gure atzekoek Euskera'ren azterrenak ugari izan ditzaten, egoki da ta lañeko da. Ta Kulturbidean ez dator gaizki, ez gogaitgarri, zenbait euskalkien azterrenak jartzea.

.....
Itzez aberats nai izan nun ateratzea ta apaintzea euskal itzulketa. Itzak ez ezik, esakun zimurrak ere bai, euskal ondarrak bezela, eusko zokoetan, Euskera galduta gero, geratu direnak.

Itzekin batera, nirekiko dut, oso Euskera'rena dala, izño xee aunitz erabiltzea, adibidez, "noski", "aski", "berriz", "berebat", "zera", "ba" ta olakoak.

Euskera'k sarritan erabiltzen ditu olako izñoak, asmo bera adirazi aurretik.

Onenbestè, (adizu ondo, gero), idazkera bat edo **estilo** bat izango litzake, ez orrela izan bear dula eolonolako < d estiloak. Euskera'rena izan ezik, baita Omer'en poeman zearo gertatzen dana da.

.....
Utsegiñak ba-dire Iliasena'ren itzulketan, noski. Batzutan oker esanak direlako; bestetzutan, berri z, orrazketa bera arnas estuka egin bear zalako.

Idazlana orrazketan berri z asi ezkeru, utsune nagusi bat lehenbizi beteko nuke. Izenorde aunitz jarriko nibe < e tute, batez ere, esakunen asieran, olako itz oriek uler erre-

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

